

Zumaiatik Zumarragara

An emenka, mendi eta zelaien zear, atze-aurrera erabiltzen diren tren txiek izkutatzen dijoaz; baiña ez guztiek, zorionez. Auetako bat, bere eguneroko eginkizuna betetzen jarraitzen duana, zintzo eta apalki, Urola izena daramana dugu.

Inguruko errekatik du artua bere izena eta gure Aldundipean sortu eta bizi da, serbitzu anitz egindakoa eta egun ere egiten dun tren.

Urolako trentxo atoskor onek, Zumaian du bere jaiotza edo irteera, izen bereko ibaia itxaso zabalean galtzen den uri berean, eta Zumarragan amaitzen du ibilaldia. Bide gogorra eta mearra trenbidea, erreka eta kamioia laguntzaille dituala.

Zumaia arrantzale erria da, ondo dakigunez. Itxas gizonak legorrear dau-denean, beren bearrezko atsedendiak igarotzen, erriko kale ta plaza bete ta alaitzen dituzte. Era berean, goibelatu itxasora irtentzen direnean.

Trena ordupean erabiltzen da, beste gauza askoren gixa. Ordua eta Zumaia aipatuaz, emengo errejugille sendi batez oroitzen naiz. Yeregitarren sendia, ain zuzen, Jatorriz leitzarrak, zumaiar auen aurrekoek Betelun izan zuten beren lantegia, «Etxetxo» deritzan etxetxoaren beeko solairuan. Famili onen adar batek kostaldeko bidea artu zuan, ekintza onerotsua zabalduaz.

Baiña tren bere orduarekin bat-batean abiatzen da, ezker-eskubi auzo eta erriek atzera utziaz, ibilaldia bete naiean. Alboan uzten ditu ere Loiolako zelai ederrak, jesulagunen sortetxea edergaillu dutela. Giroak ez dire beti berdiñak eta Inazio donearen sortetxeak ere igaran ditu bere gora-beerak, denak pozzarriak ez direnak.

Jesuitak erbesteratuta arkitzen ziren 1767 go.urtean, eta Erregearen Pragmatika bat argitaratu zen urte ontan beraien ondasunak nun eta zeinhen eskuetan arkitzen ziren jakin naiean. Agindu onen bidez agertu bearrean zeuden ondasun aien zati txikienaren jabe ere arkitzen ziren guztiek, beren burua zigortuta ikusi nai ez bazuten.

Trenak bere bideari jarraitzen dio. Ibillera makurtsua, oker-unean betetzekoa.

Esana dugu Zumarragan dela trentxo onen azken gelditokia, eta emen, uri ontako lantegitxo batzuek oriotzen ditugu. Trena eta lantegiak, txikitasunez uztarrituak. Zumarragako zuma lantzea, ia-ia atzoko ekintza. Gizon eta emakumeek beren exerlekuetan eguneroko lan-saioan murgilduak, ainbat gauza eta ainbat itxurakoak egiñez: arrai-otarrak, eroste-otarrak, ogi-otarrak, jantzi eta soñeokoekin erabiltzen diren otarrak etabar.

Emakumeak beren oiturazko aurre-mantalakin, langintzan bear-bearrezkoak zituzten goraziak lurtean utzirik eta eztena mototsean zutela, eskuak aski gauz zirenean lanketarako. Eskulangilleak, lantokietan edo etxeko bakardade bero ixillean, gure eredu oroigarri eta gaurko lantegi aurrerakoien oiñarri.

Trenak geldialdia amaitzen du. Adiskidetasunak sortzen dire bere bagoi-txoetan, baita ere zabaldu eta sendotu elkarte anaikorrak.

Urolako trentxoak errelejupean jarraitzen du. Bein eta berriro itzultzeradoa.



Zumaiatik Zumarragara / Juan Garmendia Larrañaga.
- En : [Calendario 1981. El Urola: de la costa al Goyeri en un viejo y querido tren = Itsas baztarretik Goerrira tren zahar-maitatu batetan]. - San Sebastián : Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián = Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala, [1980]. -